

» TELEGRAMA


Zanzara taldeak Amaia Irazabalen *Eltxoak* mikro-antzerkia emanen du Gasteizko **Baratza Atarian**, apirilaren 8an, ostiralean *STOP* Apirilaren 7an eta 14an Arrasateko Gaztetxean **Vendetta** eta **Bi Bala** taldeen kontzertuak izanen dira hurrenez hurren, Tokiko Gazte Asanblada sortu zeneko 25. urteurrenaren zioz *STOP Nigara Zuek* ezizeneko kantariak *Zer falta zaizu?* bakarkako lehen diskoa aurkeztuko du Iruñeko **Katakra**ken apirilaren 16an *STOP Manex Pagolak* kantu emanaldia eskainiko du Baigorriko elizan, apirilaren 23an, *Izaiteko librea* liburuaren kariatara *STOP*

» DISKOA

Txakur zaharrak sasoi batean



Iker Barandiaran

**No cambies siempre**

SEÑOR NO

Folc Records, 2015

1980ko hamarkada bukaera da Euskal Herrian eta pil-pilean egon den punkak ez du sorpresa handiagorik emango. Aurreko belaunaldiak erraietatik eta Ingalaterratik edan du, baina ondorengoek ez dute haien freskura bera. Donostiako auzo batean, ume moko batzuek, RRV-ari bizkarra emanez politika eta musika bereizi nahi dute eta AEBetako punk taldeei jartzen diete arreta gehiago. Buenawixta etxe okupatua La Perrera taldea jaio zen. Single bat, muturreko hainbat kontzertu, disko bat eta agur. Gaur egun erreferente da talde hura askorentzat baina garaian jarraitzaile fidelak baina oso gutxi zituen.

1993an txakurtegiko kide bik Nuevo Catecismo Catolico sortu zuten; eta beste bik Señor No. Ibilbide paraleloak izan dituzte, punk-rocka biziberritu, energia barra-barra partekatu eta ikuskizuna eskainiz: lehenak punk-rockaren ortodoxiari ikuspegia ireki, berrasmatu eta duindu zuen; Señor Nok, berriz, beti izan du gehiago high-energytik, basakeriatik eta Bukowskyren pareko galtzaileen poso malenkoniko horretatik.

Taldeko motore eta konposatzaile nagusi, gitarra jotzaile ikaragarri eta agertokiko piztia den Xabi Garrek beti izan ditu presente MC5, Stooges, Motörhead, La

Banda Trapera del Rio, Burning, The Who, Rocky Erickson eta Union Carbide Productions, besteak beste. Señor No-ren urrezko garaia itzela izan zen (Xabi gitarra eta ahotsean, Mikel baxuan, Andoni baterian eta Imanol beste gitarran) eta basakeriaz zein poesiaz blai egindako lau disko luze (*Señor No-94*, *No mundo-96*, *No me hables-99* eta *Siempre te diré que no-2003*) eta single ugari kale-ratu zituzten. Gerora, 2003an, partaide batzuk aldatuta, *Señor Sí* akustikoa grabatu zuten zuzenean.

Hortik aurrera taldeak ez du ordu-ra arte bezalako jarraikortasunik izan, nahiz eta Xabik beti izan duen ontzian lema eta ondoan izan dituen Fumay, Yarza, Guantxe eta beste musikari dotoreak. Emanaldi gutxi horiek Flaming Groovies talde handiaren sortzaile Roy Loney-en talde gisa egin izan dituzte; eta baita ere orain gutxi Dead Boys-eko Cheetah Chrome-rekin ere.

Orain, etenaldi luze baten ostean, taldea indarberrituta dator, oso sasotsu, eta disko luzea besopean: *No cambies siempre*. Fumay baxuan, Fosy baterian eta Leongo Jorge beste gitarran, aspaldi taldeak izan duen zuzeneko indartsuenari eutsiz. Big Sandyren *The great state of misery*, Dogo y los Mercenarios-en *Que bien me lo paso* eta zazpi kantu berri. Boltaia handiko rock gitarreroa, melodia sarkorra duena, power-popa, psikodelia, armonika, wah-wah pedalera, sitarra, pianoa, high-energia eta gero eta nabarmenago The Soundtrack Of Our Lives-en arima airean. ■

